

ANDEREÑO?

Marc Egea

Eusk: Ele txera

GLORIA *ordu erdi darama igogailu batean sartuta, eta, hala ere, oso lasai, zoriontsu ikusten zaio. Telefonoz hitz egiten du gozotasunez, ezpainen irribarrea ezabatu gabe, lagun bati intimitateak kontatzen ariko balitz bezala. Hizketan ari den bitartean, blusaren azken botoiak astiro lotzen ditu.*

GLORIA: Andereño, ni naiz berriz ere. Duela ordu-erdi deitu dizut, Juan XXIII kaleko 215. zenbakiko igogailu batean nagoelako, bi solairuren artean gelditu baita. Bai, duela ordu-erdi deitu dizut, gogoratzen? Ez, ez, trankil, oraindik inor ez dela etorri esateko besterik ez zen, eta zalantzatan nengoen zuk esandako larraldietako langile horiek denbora asko beharko ote izango duten. Bai, lehen esan duzu hamabost minutuan hemen egongo zirela. Ez kezkatu, lasai, gertatzen den gauza bakarra da leku hau, benetan, nahiko txikia dela eta klaustrofobiko samarra izaten hasi dela. Gero, gainera, bilera garrantzitsu bat daukat azken solairuan, eta, ordu honetan, ni gabe hasi dira. Bilera hemendik egiten saiatu naiz, baina ezinezkoa da. Dokumentazio guztia goian dut, txostenak, aurkezpenak, dena, badakizu? Ez, ez trankil, ez da ezer gertatzen, suposatzen dut, gauza hauek beren denbora behar dutela, bakarrik jakin nahi nuen... hemen nirekin itxita geratu den jauna eta biok bidean dauden jakin nahi genuke. Ez gaituzue ahaztu, ezta? Gutaz gogoratzen zara, gogoan gaituzu... Ondo... Bai?... Uneoro?... Kamera? Zer kamera? *(Blusaren azken botoia lotzen du. Momentu batean, kamera begiradaz bilatzen du sabaiko lekuren batean, paretetan. Gero, ondoan duen gizona begiratzen du)*

(Telefonoan, berriro) Begira, andereño, inor ez badator bost minutu baino gutxiagoan gu erreskatatzera, gogoan izango duzun sekulako iskanbila antolatzen dizut. Azkar andereño!... Kamera esan du!

Ele txera
munduarek zabaldiaz

